

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

OGASUN, FINANTZA ETA AURREKONTU SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 24/2020 Erabakia, urtarrilaren 28koa. Onestea Kontseiluaren ekainaren 22ko 390/2008 Erabakiaren bidez onetsitako Donemiliagako udalerriko balioen txosteneko irizpideak aplikatzea ondasun higiezin gaineko zergari loturiko hiri lurzoruaren mugaketari buruzko Kontseiluaren azaroaren 19ko 738/2019 Erabakiaren bidez sartutako lurzoruari

Foru Gobernu Kontseiluaren azaroaren 19ko 738/2019 Erabakiaren bidez, behin betiko onestena eman zitzaion ondasun higiezin gaineko zergari lotutako Donemiliagako udalerriko hiri lurzoruaren mugaketari, zeinaren helburua baita hura eguneratzea Ingurumen eta Hirigintza Sailak irailaren 22ko 294/2016 Foru Aginduaren bitartez arau subsidiarioetan egin zuen aldaketa kontuan hartuta.

Bestalde, Diputatuen Kontseiluaren ekainaren 22ko 390/2008 Erabakiak behin betiko onetsi zuen Donemiliagako udalerriko ondasun higiezin gaineko zergari lotutako lurzoruaren eta hiri eraikinen balioen txostena.

Horrenbestez, beharrezkoa da 738/2019 Erabakian jasotakoak direla eta eragindako lurzatiei aipatutako udalerrian indarrean dagoen balioen txostenean (390/2008 Erabakiak onetsia) jasotako irizpide berberak aplikatzea orain.

Horregatik, Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatuak proposatuta eta Foru Gobernu Kontseiluak gaur bertan egindako bilkuran gaia aztertu ondoren, hau hartu du

ERABAKIA

Lehenengoa. Onestea Diputatuen Kontseiluaren ekainaren 22ko 390/2008 Erabakiaren bidez onetsitako Donemiliagako udalerriko balioen txostenean jasotzen diren zerga zonak aplikatzea Foru Gobernu Kontseiluaren azaroaren 19ko 738/2019 Erabakiaren bidez Donemiliagako udalerriko ondasun higiezin gaineko zergari loturiko hiri lurzoruaren mugaketa onestearen ondorioz erantsitako hiri lurzoruari.

Bigarrena. Erabaki hau ALHAOn argitaratuko da, eta Donemiliagako Udalari dagokio haren berri ematea, kasuan kasuko ediktuak jarrita.

Hirugarrena. Erabaki honen ondorioz ematen diren egintzak interesdunei jakinaraziko zaizkie Diputatuen Kontseiluaren abenduaren 22ko 1080/1992 Foru Dekretuak, hiri ondasunen katastro balioak berraztertzeko eta aldatzeko prozedura arautzen duenak, 17. artikuluan xedatutakoarekin bat etorritz.

Vitoria-Gasteiz, 2020ko urtarrilaren 28a

Diputatu nagusia

RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE

Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatua

ITZIAR GONZALO DE ZUAZO

Ogasun zuzendaria

M^a JOSÉ PEREA URTEAGA